

**2021EKO OTSAILAREN 23AN EGINDAKO
OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Gorka Murua Macuso

Zinegotziak

Noelia Lataburu
Ana Jesus Leunda Gurrutxaga

EZ BERTARATUAK

Zinegotziak

Mikel Gotzon Iturbe Saizar
Olaia Nieto Legarra
Leticia Aristi Oriá
Jose Ramón Eperde Irizar
María Cristina Santos San Sebastian
Marta Castrillo Iturralde

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Arratsaldeko 19:30etan batzarrari hasiera eman zaio.

Iruran, 2021eko otsailaren 23an arratsaldeko 19:30etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Irurako Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Koronavirus -Covid 19- izurritearen alarma egoera ikusita eta korporatiboen eta hiritarren osasuna babesteko, Alkaten Dekretun bidez Plenoko aretoaren neurriak ikusirik neurri berezi batzuk hartu direla:

1.- Bileran zinegotzi hauek partehartuko dute zuzenean: Alkatea, EH Bildu udal taldearen bozeramailea, EAJ/PNV udal taldearen bozeramailea eta udaleko idazkaria.

2.- Gainontzeko zinegotziek, bere taldeko bozeramailearen gain utziko dute bere boto delegatua. Bozeramaile bakoitzak delegazio kopuruaren arabera botuak izango ditu.

Ondorioz:

-Leticia Aristi Oriá, Olaia Nieto Legarra eta Mikel Iturbe Saizar, EH Bildu udal taldearen zinegotziek beren botoa Noelia Lataburu Ortiz zinegotzian delegatu dute. Orduan, berea eta hiru boto gehiago izango ditu: 4 boto.

-María Cristina Santos San Sebastian, Jose Ramón Eperde Irizar eta Marta Castrillo Iturralde, EAJ/PNV udal taldearen zinegotziek beren botoa Ana Jesús Leunda Gurrutxaga zinegotzian delegatu dute. Orduan, berea eta bi boto gehiago ditu: 4 boto.

3.- Bilera, publikoari itxita izango da, nahiz eta edozein herritarrek eskubidea izan bileraren akta eta audio grabazio eskuratzeko.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Gorka Murua Macuso izan da Batzarburua.

1.- AURREKO AKTAK ONARTZEA:

*** 2020/11/24KO OHIKO BILKURA.**

Batzarkideek, 2020ko azaroaren 24ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

*** 2020/12/29KO OHIKO BILKURA.**

Batzarkideek, 2020ko abenduaren 29ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2020/272 DEKRETUTIK 2021/28 DEKRETURA BITARTEAN.

Alkatetzak 2020ko abenduaren 22tik otsailaren 16ra bitartean (2020/272-2021/28) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- 282/2020 ALKATE DEKRETUA BERRESTEA: “COVID-19 DELA ETA TRINKETE TABERNARI KALTE-ORDAINA EMATEA”.

Trinkete tabernak, beste gainontzekoek bezala itxita egon behar izan du, hala ere, Trinketeko taberna kudeatzen dutenek, tabernaz gaiz beste zerbitzu batzuek kudeatu behar dituzte, hala nola, sinatutako hitzarmenaren baitan dauden beste hainbat zeregin. Idazkariarekin galera hau nola konpentsatu aztertu ondoren; galerak konpentsatzeko sistema bat ezarri dela, kalkuloa egiteko fakturazioan oinarrituta.

Halaber, Trinketeko tabernako arduradunak, Ikastolako patioko ateak ixteko ardura beraien gain geratuko da.

“20-12-30eko 282/20 DEKRETUA

DECRETO N° 282/20 DEL 30-12-20

Iruran, bi mila eta hogeiko abenduaren hogeita hamarrean, eguerdiko ordu batean, udaletxeko bulego ofizialean, eta neronek, Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin korporazioko idazkari kontu-hartzaileak lagunduta, Gorka Murua Macuso alkate-lehendakariak, zera dio:

Alkateak uztailaren 11ko 122/18 Dekretuz erabaki zuen Ametsa Udal Trinketeko Tabernaren kudeaketa “María Concepción Elorriaga y otro” ondasun-erkidegoari esleitzea, bost urtez, 2018ko

En Irura a treinta de diciembre dos mil veinte, en la Casa Consistorial, siendo las trece, se constituye en su despacho oficial, el Alcalde de este Ayuntamiento de Irura, D. Gorka Murua Macuso y asistido por mí, el Secretario-Interventor de esta Corporación D. Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin y dice:

Por Decreto de Alcaldía nº 122/18 de 11 de julio, se acordó conceder a la Comunidad de Bienes “María Concepción Elorriaga y otro” la adjudicación de “gestión del Servicio de Bar del Trinkete Municipal Ametsa” por el periodo de 5

uztailaren 1etik hasita.

Kontratuan jasotakoaren arabera, zerbitzu hori emateaz gainera zainketa-eta zaintza-lanak egin behar dira (taberna irekitzea eta ixtea, instalazioak erabiltzea, orduak kobratzea...).

Horretarako ez dago udal-kanonik ezarrita, eta taberna-zerbitzua emateagatik errentak baino ez dira ordaindu behar.

Urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuak alarma-egoera deklaratu du berriro, Covid 19aren epidemiak eragindako osasun-krisia kudeatzeko. Halaber, Lehendakariaren azaroaren 6ko 38/2020 Dekretuaren bidez, ostalaritzako eta jatetxeetako establezimendu eta zerbitzuen erabateko itxiera ezarri da.

Bestalde, kontratuan trinketeko instalazioari lotutako betebeharrak mantendu dira (irekiera eta itxiera...).

Horregatik, galerak konpentsatzeko sistema bat ezarri nahi da.

Zerbitzuaren emakidadunaren arabera.

Idazkari kontu-hartzailearen txostena ikusita.

ERABAKI DUT:

1.- 1.100 € gehi BEZ-eko konpentsazioa ematea hilero, trinketeko tabernan diru-sarrerak galtzeagatik, aipatutako arrazoiengatik.

2.- Kalte-ordain hori hilero

años, a partir del 1 de julio de 2018.

El contenido del contrato es la prestación de dicho servicio más otras relacionadas con el cuidado y vigilancia del contrato (apertura y cierre, uso de las instalaciones, cobro de horas...).

Dado que no percibe ningún canon municipal, la compensación de las obligaciones son las rentas a percibir por el servicio de bar.

En relación con la epidemia de Covid 19, ahora de nuevo por Real Decreto 926/2020, de 25 de octubre, se vuelve a declarar el estado de alarma para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionada por el Covid-19. Así mismo por Decreto 38/2020, de 6 de noviembre del Lehendakari, se ha establecido el cierre total para el servicio a las personas de los establecimientos de hostelería y restauración.

Por otro lado y en virtud del contrato, se mantienen las obligaciones relacionadas con la instalación del trinkete (apertura y cierre...).

Por ello, se trataría de establecer un sistema de compensación por los ingresos perdidos.

De acuerdo con el concesionario del servicio.

Visto el informe del Secretario-Interventor.

RESUELVO:

1º.- Conceder una compensación mensual de 1.100 € más IVA, por la pérdida de ingresos en el bar del trinkete, por las causas citadas.

2º.- Dicha indemnización se

fakturatuko da, baldintza horiek dirauten bitartean.

3.- Lege-murrizketa itxiera baino txikiagoa bada, dagozkion konpentsazioak itunduko dira.

4.- Konpentsazio hori bateragarria izango da Covid-19 epidemiarekin hartutako neurriek eragindako kalteen beste edozein kalte-ordain publikorekin.

5.- Behar publikoengatik, bere betebeharrei gehitu zaie trinketetik gertu dagoen Irurako Ikastolako patioa arratsaldeetan ixtea.

6.- Alkate-lehendakariari hitzarmena sinatzeko baimena ematea, udalaren izenean eta ordezkaritzan.

Guztiaren berri emanez, nik, idazkariak fede ematen dut, goian adierazitako egun eta lekuan, eta nirekin batera, adostasunaren adierazgarri, alkate-lehendakariak izenpetu du.

Batzarkideek, dekretua aho batez onartu dute.

4.- 28/2021 ALKATE DEKRETUA BERRESTEA: "IRURAN ERROLDATUAK EZ DAUDEN BAZKIDE GUZTIEI TRINKETEKO KUOTA EZ KOB RATZEA".

Mugikortasun murrizketak zirela eta, kuotak ez kobratzea erabaki zen, bazkideak ezin zitezkeelako instalakuntzetara gerturatu. Zerrenda luzea da, bazkide asko ez direlako Iruratarrak.

21-02-16ko 28/2021 DEKRETUA

GORKA MURUA MACUSO Jn.k, IRURAKO Udaleko Alkateak, Toki-Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85ko Legeko 21.1. atalean xedatutakoaren arabera, honako hau:

facturará mensualmente, mientras se mantengan dichas circunstancias.

3º.- En caso de una restricción legal inferior al cierre se pondrá pactar las compensaciones correspondientes.

4º.- Esta compensación será compatible con cualquier otra indemnización pública por los perjuicios causados por las medidas adoptadas con la epidemia Covid-19.

5º.- Por necesidades públicas se añade a sus obligaciones el cierre a las tardes del patio de la Irurako Ikastola, sito en la cercanía del trinquete.

6º.- Autorizar al Alcalde-Presidente para la firma del Convenio en nombre y representación del Ayuntamiento.

De todo lo cual, yo el Secretario, doy fe en el día y lugar arriba citados, firmando conmigo el Sr. Alcalde-Presidente en prueba de conformidad.

IKUSIRIK

4-/2021 DEKRETUA, urtarrilaren 22koa, lehendakariarena, zeinaren bidez hirugarren aldiz aldatzen baita honako dekretu hau: 44/2020 Dekretua, abenduaren 10ekoa, lehendakariarena, zeinaren bidez prebentzio-neurri espezifikoak testu bakar batean bildu eta eguneratuko diren, alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko

Aipatutako dekretu honen 2. Artikuluko 4. Puntuan ondorengoa zehazten du:

«2. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean pertsonak sartzeko eta ateratzeko mugak.

4.– Era berean, mugatu egiten da bizilekua duten udalerriko barruti bakoitzeko pertsonen sarrera eta irteera, aurreko atalean aurreikusitako salbuespenekin. Salbuetsita daude, era berean, baimendutako kirol-entrenamenduetarako eta lehiaketetarako beharrezko lekualdatzeak.

KONTUAN HARTURIK

2/2005 Foru Araua, martxoaren 8koa, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorra.

4-/2021 DEKRETUA, urtarrilaren 22koa, lehendakariarena, zeinaren bidez hirugarren aldiz aldatzen baita honako dekretu hau: 44/2020 Dekretua, abenduaren 10ekoa, lehendakariarena, zeinaren bidez prebentzio-neurri espezifikoak testu bakar batean bildu eta eguneratuko diren, alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko

ERABAKI DUT

Lehenengoa: Iruran bizi ez diren bazkide guztiei trinketeko kuota ez kobratzea, otsailetik aurrera, neurri hauek aldatu bitartean.

Hau da kanpoan bizi diren bazkide zerrenda:

IZEN-ABIZENAK

ABAIGAR,CASTILLO,OSCAR

ALKORTA,EGILEGOR,ANTTONI

ANTONIO,BARRIO,IÑAKI

ARAMBURU,LEGARRETA,MAITANE

ARANA,EIZMENDI,IGOR

ARANZABE,OLANO,KRISTINA

ARANZABE,SANCHEZ,EKAIN
ARICETA,LOPETEGI,JON
ARICETA,SIMON,JUAN CARLOS
ARRUTI,LAZCANO,IMANOL
ASCARAY,SUCUNZA,JAVIER
ASSARI,,HICHAM
AYESTARAN,HERNANDO,IÑAKI
BALDA,EZKURDIA,AMAIA
BALDONEDO,LABIN,JAVIER
BARRIO,RUIZ,ANTXON
BARTOLOME,ARIZMENDI,ANDONI
BELDARRAIN,ESPARZA,NAIARA
BELDARRAIN,HERRERO,GUILLERMO
BERASALUZE,GERRIKAGOITIA,IRATI
BERASALUZE,GERRIKAGOITIA,LEIRE
BERASALUZE,LETURIA,XABIER
BERASATEGUI,BELOQUI,JESUS A.
BULDAIN,ARIÑO,ANDER
CAMIO,MALCORRA,JON
CHAVEZ,SANTANA,DEYLIEN
CRESPO,DIAZ,DANIEL
CRUZ,BARRONDO,NAROA
DE ANTA,MATEOS,XABAT
DEL TESO,ERRAZQUIN,MIREN JOSUNE
DEL TESO,ERRAZQUIN,MIREN JOSUNE
DUARTE,RODRIGUEZ,ANGEL FRANCISCO
ELOLA,LEO,LORENA
ETXEBERRIA,ALBISU,TXEMA
ETXEBERRIA,PEÑAGARIKANO,JOKIN
ETXEBERRIA,PIKABEA,IBAN
EZEIZA,MUJIKÁ,AITOR
GALARZA,AMATRAIN,AITOR
GARCIA,SESMA,DENISE
GOENAGA,RIBEIRO,ENMANUEL SIDNEY
GONZALEZ,SANTOS,MAIALEN
HAIMANE,ISASTI,NABIL
HERNANDO,FERNANDEZ,CILINIA
HERRERA,PANIAGUA,SERGIO
IÑURRITA,TEJERIA,ALLENDE
IMAZ,GARMENDIA,IVAN
IRIARTE,URKIZU,MAIDER
ITURZAETA,URIA,INMACULADA
LABORDE,ECHAVE,OIER
LARRAÑAGA,ARIZNABARRETA,LIDE
LASA,LASA,JUAN CARLOS

LASA,SARASOLA,MIGUEL ANGEL
LAZKANO,OLANO,XABIER
LEKUONA,NIETO,ARITZ
LOPETEGUI,CHIVITE,EKAITZ
MARTIN,CORTES,FRANCISCO JAVIER
MARTIN,GARCIA,AIXA
MARTIN,GARCIA,ERLANTZ
MARTIN,GONZALEZ,IOSU
MARTINEZ,AGUIRREURRETA,IBON
MENDES,REIS,JOSE PAULO
MENDIZABAL,IBARBIA,ANDER
MERINO,ARICETA,AINHOA
MIGUEL,ERASO,AITOR
MUJIKA,GARAIALDE,JOSU
MUNITA,SARALEGI,XUBAN
MURILLO,POZO,JUAN MANUEL
NARVARTE,MENDIZABAL,IMANOL
NIETO,GAZTELU,PABLO
OLALLA,SAGARNA,GEMA
OLANO,GABARAIN,EIHARNE
ORDOÑEZ,LEZA,CARLOS
OTAEGI,OTAMENDI,IÑAKI
OTAEGUI,FERNANDEZ,MIGUEL
OTERMIN,ARRIETA,JOSE IGNACIO
OYARZABAL,MENDIZABAL,IRATI
PEÑAGARIKANO,ARENAZA,ANDOITZ
PEÑAGARIKANO,ARREGI,IRAITZ
PELAEZ,ARREGI,OIHANA
PEREZ,RODRIGUEZ,ESTER DAVINIA
PRIETO,BENITO,ANGEL
RINCON,VIZCAINO,MIKEL
RODRIGUEZ,GARCIA,SHEILA
RODRIGUEZ,GARCIA,THAIS
SAÑUDO,GONZALEZ,MANUEL
SALAVERRIA,GALLO,UNAI
SANTOS,SOUZA,DAVISON MEDEIROS
TORREGARAY,ARSUAGA,MAIDER
URANGA,GALATAS,PATXI
UZCUDUN,SANCHEZ,ELISABET
UZKUDUN,URANGA,NAROA
ZUBELDIA,ALKORTA,EIDER
ZUBELZU,LOIARTE,EKAITZ
ZURDO,GARCIA,AITOR

Bigarrena: Kontu-hartzaitzari akordioaren berri emango zaio.

Hirugarrena: Udalbatzarrari berri eman jakin dezan.

Batzarkideek, dekretua aho batez onartu dute.

5.- “OPORRAK BAKEAN” PROGRAMA BERTAN BEHERA GERATU DELA ETA TOLOSALDEA SAHARAREKIN HITZARMENA SINATZEA.

2020ko udaran Saharako haurrak ezin izan ziren etorri eta beste egitasmo batzuek jarri zituzten martxan elkarteek. Bilketa solidarioak egin zituzten hainbat herrietan. Gure kasuan, urteroko dirulaguntza Tolosako udalaren bitartez ematen genuen, aldiz, orain, Oporrak Bakean programa gauzatuko ez denez, diru hori, tolosaldea Sahararekin elkarteari zuzenean bideratuko diogu.

“ ALKATEAREN PROPOSAMENA

Gorka Murua Macuso Jnk Irurako Udaleko Alkateak, Toki-Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85ko Legeko 21.1. atalean xedatutakoaren arabera, honako hau

IKUSIRIK

Tolosaldean burutzen den Saharako haurrak gure ingurunean udara pasatzeko “OPORRAK BAKEAN” programan parte hartzeko urteko dirulaguntza bideratzen duela Udal honek.

Covid19aren pandemia dela eta hurrek ezingo dutela bidaiatu eta ezingo dela programa aurrera eraman.

Tolosaldea Sahararekin elkarrekin luzatutako proposamena, non haurren bidaiak ordaintzeko bideratzen zen aurrekontua, proiektu berri batera bideratzea, hots, poltsa solidarioak prestatu eta Saharara eramatea.

Halaber, Oporrak bakean programa:

- Saharar errefuxiatu kanpamentuetan jaiotako eta hazi diren 10 eta 12 urte bitarteko haurrei uda saharar errefuxiatu kanpamentuetatik urrun, gure herrietan igarotzeko aukera ematen die
- Haur batzuk harrera familietan egoten dira, eta beste batzuk espreski horretarako prestatutako aterpetxe batean. Azken urteetan Tolosaldeara 30 haur etortzen dira.
- Udan errefuxiatu kanpamentuetan egiten dituen 55 graduetatik gorako tenperaturetatik babesteko aukera ematen die
- Ohiko otorduekin, jasan dezaketen anemia murrizteko edota desagerrarazteko aukera izaten dute
- Mediku errebisioak egiten zaizkie eta errez sendatu daitezkeen gaixotasun txikiak sendatzeko aukera eskaintzen zaie (normalean begiekin, belarriekin edo azalarekin zerkusua dituzten gaixotasunak izaten dira) eta txanda ezberdinetan etortzeko aukera izaten dutenez jarraipena egiten zaie.
- Uda bukaeran hurrek 28kg poltsa bat eramateko aukera izan ohi dute, eskolako materiala, botikak, arropa eta janari pixkat eramaten dutelarik. Saharar familiek poltsa

hau senide eta bizilagunen artean banatzen dute, eta poltsa horrek pertsona ezberdinen onura ekarriko du.

- Programak berak, sahararrek bizi duten egoera ezagutzeko aukera ere eskaintzen digu euskaldunoi eta haurrak enbaxadore txikien lanak burutzen dituzte, euren egunerokotasunaren berri izan dezagun. Programa euskal eta saharar biztanleen arteko elkartasun zubia da eta elkartasun hau normalean urte guztira zabaltzen den elkartasuna izan ohi da.

Ikusirik OPORRAK BAKEAN gizarte zerbitzuetako batzordean URTERO tratatzen den gaia.

Kontuan hartuta Toki Jaurbideko legediak emandako eskumenak,

PROPOSATZEN DUT:

Lehen: Tolosaldea Sahararekin hitzarmena sinatzea.

Bigarrena: OPORRAK BAKEAN programaren dirulaguntza etetea, horretarako 500 € bideratu 1 0000.481.231.00.00 (2021) kontu izendapenetik, eta Tolosaldea Sahararekin elkarteari ordaindu sinatutako hitzarmenaren arabera.

Batzarkideek, dekretua aho batez onartu dute.

6.- EH BILDUK UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: “MARTXOAREN 8A, ADIERAZPEN INSTITUZIONALA”.

EH Bilduk honako mozio hau aurkeztu du eta Noelia Lataburuk zinegotziak irakurri du:

MARTXOAREN 8a ADIERAZPEN INSTITUZIONALA prestatzeko proposamena

Duela ia urtebete gure jendartea eta bizitzeko moduak astintzen zituen COVID19ak eragindako pandemiak, inoiz ez bezala. Krisi multidimentsional eta sistemiko bat bizi dugu, aurrekaririk gabekoa, lehendik zetozen beste krisi batzuekin gurutzatzen eta lotzen den krisia, hala nola krisi ekologikoa eta zaintzen krisiekin.

Pandemiak agerian utzi du gordinki feminismitik aspaldi aldarrikatzen ari zena: bizitza zaugarria eta dependientea da, eko eta interdependentea. Ezerk ez du bizitzaren zaintza baino garrantzitsuagoa izan behar, pandemiarekin muturreraino ahuldu eta prekarizatu den bizitza. Bizitzari baldintza duin eta justuetan eustearen aldeko apustu erradikala egiteko unea da: horrek begirada feminista eskatzen du erakundeetatik bultzatzen ditugun politika guztietan, dagoeneko egiaztatuta baitago emakumeek eta neskek eragin negatiboagoa izan dutela krisi honetan, batez ere krisira zaugarritasun edo diskriminazio handieneko egoeran sartu

zirenentzat.

Eraldaketa erradikalak behar ditugu, feminismoak ozen dio aspaldi. Gure gizarteak justizian eta demokrazian aurrera egin dezan, erdigunean erreproduzio sozial jasangarria jar dezaten politika publikoak behar ditugu, kapital-metaketa baztertuz, zeinak gizarte-gehiengo bizi-baldintzak prekarioagoak bihurtzen baititu, merkantilizatu egiten baitu eta natura ustiatzen baitu, belaunaldi berrien etorkizuna arriskuan jarriz. Eta orain, krisi honek desberdintasunak areagotzea eta emakumeen eskubideetan atzerapena eragin ez dezan, are premiazkoagoa da genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala txertatzen duten neurri feministak hartzea.

Hilabete hauetan genero-desberdintasun estrukturalen gorakada errealitate ukazina da: emakumeek beren gain hartu dute zaintzen karga gehiena, ordaindua eta ordaindu gabea; lana galdu edo lan-baldintza are prekarizatuagoak ezarri dizkiete; birusa hartzeko arrisku handiagoa dute, genero-ikuspegiarekin ikertu gabe jarraitzen zuten bitartean; indarkeria matxista areagotu egin da, hari aurre egiteko baliabideak eta baldintza materialak mugatzen ziren bitartean; beste behar batzuk baztertu egin dira, hala nola sexu- eta ugalketa-osasuna edo osasun mentalararekin lotuak; parte-hartze soziopolitikorako aukera eta baldintzak galdu dituzte, etab.: azken batean, eta batez ere kolektibo zaurgarrienetako emakumeei dagokienez, pobretu dira zentzu guztietan, indarkeriaren aurrean babesgabeago daude, haien osasuna okertu egin da, zaintza-lanen zama handiagoa da...

Irtenbidea ez da pandemiaren aurreko egoerara itzultzea, emakume gehienek lehenago ere bizi baitzuten diskriminazioa eta eskubideen urraketa: orain da unea pandemian areagotutako larrialdiei erantzuna emateko, eta, aldi berean, guztiontzako bizitza duina bermatzea eta zaintzea lehentasuntzat joko duen antolaketa sozial, ekologiko eta ekonomikoko sistema bateranzko oinarri sendoak ezartzeko.

Publikotik krisi honi egoki erantzungo dioten erantzun integralak premiazkoak dira, esparru eta maila guztietan, globaletik tokikoraino eta alderantziz. Euskal Herrian, gure eskumen-esparru mugatuan, argi daukagu gure lurraldeetan gure bizitzaren burujabe ez garen bitartean ezin izango ditugula beharrezko aldaketa guztiak bultzatu: hala ere, badaude aukerak bide hori marrazten joateko, sisteman pitzadurak irekitzeko, eta, hain zuzen ere, tokikoa da eremu egokiena. Azken hilabeteetan Euskal Herriko hainbat udalerritan bultzatu diren zaintzako ekimen publiko-komunitarioak eredu ezin hobea dira.

Horretarako, erakundeak koordinatu behar dira, eta bideak ireki herritarrek erabaki publikoetan benetan eta eraginkortasunez parte har dezaten, batez ere emakume-talde anitzek eta mugimendu feministak. Behar bezala aurre egin behar diogu daukagun erantzukizun publiko handiari, eta hori premisa feministetatik egin behar da, artikulazioa eta parte-hartzea bultzatuz, plan eta programa eraldatzaileak eginez, larrialdiei arreta emanaz eta behar diren baliabide guztiak ahalbidetuz.

Ez dago aitzakiarik: ez argazkirik ez adierazpen hutsik martxoaren 8aren atarian gaudelako. Egun honek udal honek politika publiko-komunitario feministekin duen konpromisoa berresteko balio behar du, krisiaren ondoriozko larrialdiei erantzuteko eta erdigunean bizitza zainduko duen gizarte-eredu baterantz joateko.

Horregatik guztiagatik, Irurako Udalak honako hau erabaki du:

1. COVID19aren ondorioak eta kolektibo eta pertsona ahulenen egoera eta beharrak aztertzea, besteak beste: bakarrik bizi diren adinekoak (nagusiki isolatuak bizi direnak eta emakumeak), guraso bakarreko amak, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak eta haurrak, kalean dauden pertsonak, familia-eremuko zaintzaileak (ordainduak eta ez ordainduak), emakume langabeak, etab. Ikuspegi feminista eta tokiko eragile sozialen parte-hartzea bermatu beharko da, bereziki emakume eta feministena.
2. Errealitate horren eta identifikatutako beharren aurrean, premiazko ekintza eta neurri sorta bat identifikatzea eta plangintza batean jasotzea, baliabideak, kronograma eta arduradunak zehaztuz eta herritarren parte-hartzea bermatuz, bereziki emakumeen kolektiboena, bai diseinuan, bai jarraipenean eta ebaluazioan. Mota honetakoak izan daitezke, besteak beste:
 - Kolektibo zaurgarriari arreta emateko eredia eta funtzionamendua berrikustea, pertsona / kolektiboen mota zein emandako zerbitzuen funtzionamendua eta edukia zabaltzeko, ikuspegi feminista eta ahalduntze-ikuspegitik, adibidez: adineko pertsonak (bereziki bakarrik bizi direnak eta emakumeak), familia kalteberak, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak eta haurrak, etxeko langileak, ordaindu gabeko zaintzaileak familia-eremuan, etorri berriak (egindako azterketaren eta gure errealitatearen arabera)...
 - Premia horiei behar bezala erantzungo dieten zerbitzuak eta baliabideak identifikatzea eta abian jartzea: bakarrik bizi diren adinekoei jarraipen zuzena, etxebizitza-baliabideak erraztea (alokairu soziala, etxebizitza komunitarioak), etxez etxeko laguntza-zerbitzua indartzea eta egokitzea, zainketekin lotutako erabilera komunitariorako udal-espazioak egokitzea, indarkeriaren biktimentzako baliabide berriak eta prebentzio, detekzio eta arretarako baliabide ekonomiko zein pertsonalak ahalbidetzea.
 - Zaintzaileen baldintzak (ordainduak eta ez ordainduak) duintzeko ekintzak: informazioa, aholkularitza, eredu kooperatiboak bultzatzeko laguntza-ildoak, etab.
3. Emakume, nerabe eta neskatoen ahalduntze indibidual eta kolektiborako ekintzak bultzatzea, kolektibo feministen eskutik.
4. Gure herriko emakumeen ehun-soziala indartzea, premisa feministetatik eta ahalduntze-premisetatik.
5. Tokiko zaintza sare komunitarioei babes eta baliabideak ematea.
6. Zaintza-lanen balio sozial eta politikoa aitortzen duten komunikazio-kanpainak egitea, erantzunkidetasunari arreta berezia eskainiz eta etxeko langileenak bezalako errealitateak ikusaraziz.
7. Premisa feministetatik abiatuta, zaintzei buruzko herri eztabaida-guneak irekitzea, askotariko kolektibo sozial, administrazioa eta gure udalerrian dauden beste sektore batzuk inplikatuz.
8. Harrera publiko-komunitarioko programak sustatzea iritsi berriak diren pertsonentzat, tokiko eragile sozialen parte-hartzearekin eta kolektibo ahulenei arreta berezia jarriz, genero-ikuspegia aplikatuz.
9. Zeharka, identifikatu diren Udalerriko emakume zein kolektibo feministek parte hartzeko bideak irekiko dira, identifikatu diren jarduera guztien diseinutik ebaluazioraino parte hartu ahal izateko, euren iritzia kontuan hartuz.

Jarraian, Ana Jesus Leunda Gurruchaga And.ak Eudelek prestatutako mozioa irakurri du:

ZAINITZA BERTINTASUNEAN. Emakumeen egitekoa Pandemian eta zaintzaren Krisi Globalean

Dimentsio askoko krisi sistemikoan gaude, zeina gurutzatu eta erlazionatu egiten baita aurretik zeuden beste krisi batzuekin; esaterako, ekologikoa eta zaintza-arlokoa. Pandemiak agerian

utzi ditu mugimendu feminista eta emakumeen kolektiboak egiten ari ziren zenbait aldarrikapen: giza bizitza zaugarria da, eta giza ingurunearen, ingurumenaren eta ingurune komunitarioaren zeharo mendekoa. Ezerk ez du garrantzi handiagoa izan behar bizitza zaintzeak baino, pandemia dela-eta muturreraino prekario bihurtu eta ahuldu den bizitza.

Gaur, martxoak 8, Emakumeen nazioarteko egunean, pandemiak eta haren kudeaketak baldintzatutako urte honetan, aintzat hartu beharra dago emakumeek pandemia eta beraren ondorioak borrokatzeko mundu osoan egindako ekarpena. Zaintzaren ardura emakumeei egokitu zaie, bai zerbitzu publikoetan (osasungintza, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, merkataritza eta elikadura...) bai etxeen barruan, eta batez ere haiek eraman dute krisi sanitario eta sozial honetan funtsezkoak izan diren zerbitzu askoren zama. Emakumeen artean ere banaketa desorekatua da, klase sozialaren, arrazializazioaren eta migrazio-estatusaren arabera. Gainera, kasurik gehienetan egoera prekarioan egindako lanak dira.

Berdintasunik gabeko banaketa horrek, gainkargaz gain, eta hark emakumeen osasunari eta bizi-kalitateari dakartzkien ondorioez gain, zaintza-sistemaren prekaritatea ere azaleratu du, eta lehendik ere bazeuden desberdintasunak areagotu ditu. Gure gizarte-ereduak familiarren, eta, neurriz kanpoko proportzioan, emakumeen esku uzten ditu zaintza gehienak, bai ordainpekoak bai ordaingabeak; oso gutxi ematen dira eremu publikoan. Bestalde, egoera eta estatus okerreneko emakumeek (guraso bakarreko familien buruak, behartsuenak, kolektibo zaugarrietakoak, indarkeria matxistaren biktimak...) neurri handiagoan jasaten dituzte zaintza-zamaren ondorio negatiboak.

Ondorioz, gizarteak bere aitortpena adierazteko moduak konpromiso irmoa izan behar du, berdintasunik gabeko banaketa bidegabe horri euskarria ematen dioten genero-arrakalak borrokatzeko konpromisoa. Desberdintasun horiek agerikoak dira emakumeek funtsezko zerbitzuetan egiten duten lanaren baldintzen prekaritateari begiraturaz gero. Bada garaia zaintza-lan guztiei dagokien balioa emateko, eta aurrera egiteko erantzunkidetasun handiagoko eredu baterantz, pertsona guztientzat ekitate eta ongizate handiagoa sortzeko.

Udalak gaude lehen lerroan, pandemiari eta hark pertsonengan dituen ondorioei aurre egiten, eta liderrak izan behar dugu zaintzari eta haren hornikuntzari buruzko politika publikoak bultzatzeko orduan, erantzunkidetasun publikotik abiatuta, eta arreta emanaz gizon eta emakumeen baldintza eta inpaktu desberdinei.

Erakundeok koordinatuta egoten jarraitu behar dugu, eta bideak zabaldu behar ditugu herritarrek, eta bereziki mota askotako emakumeen kolektiboek eta mugimendu feministak, benetan eta modu eraginkorrean parte har dezaten erabaki publikoetan.

Horregatik guztiagatik, Udal honek, bere eskumenen esparruaren barruan, honako konpromisoak hartzen ditu:

- Gizartean zaintza antolatzeko **ereduari buruzko eztabaida** bultzatzea eta eztabaida horretan buru izatea, bizitza erdigunean jartzean oinarritzen den ikuspuntu feminista batetik abiatuta, zaintzaren erantzunkidetasun sozial eta komunitarioranzko bidean.
- **Analisia** egitea, genero-ikuspuntutik, kolektibo zaugarrienen egoerari eta beharrezan buruz, baita COVID-19aren ondorioei buruz ere, eta horiei aurre egiteko premiazko **neurriak martxan jartzea**.
- COVIDaren krisiaren eragina arintzeko onartzen diren neurri guztietan genero-ikuspuntua gehitzen dela bermatzea, **laguntzez eta babes-programez** den bezainbattean.

- Konponbide bideragarriak aztertzea eta ezartzea **adingabekoen eta mendekotasuna dutenen zaintzari laguntzeko** tokiko zerbitzuentzat, zaintza baldintza duin eta bidezkoetan egin dadin saiatuz edo/eta erraztuz, bai ematen duenarentzat bai jasotzen duenarentzat ere.
- **Udalen Berdintasun-plangintzetan**, espresuki azpimarratzea emakumeen ahalduntzea, zaintzaren balioa, eta hari dagokionez gizonek duten **erantzunkidetasuna**.
- Berdintasuneko tokiko politikak garatzeko eta generoa tokiko politika guztietan zeharlerroa izateko erabiltzen diren **giza baliabideak eta baliabide tekniko eta ekonomikoak** sendotzea eta babestea.
- Tokiko **zaintza-sare komunitarioei** babesa ematea.

BOZKETAK:

Aldekoak: Gorka Murua eta Noelia Lataburu.

Kontra: ez da kontrako boturik egon.

Abstentzioak: Ana Jesus Leunda Gurruchaga, eaj/pnv taldekideen ordezkari gisara abstenitu egin da.

Mozioa onartu aizan da.

7.- IDAZKARI KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENAK JAKINARAZTEA.

-2020ko 4 H.H. ko ordaintzeko batez besteko epea. Legeari erreparatuz esan emaitza ona dela, 30 eguneko mugarekin alderatuz Irurako Udalaren ordainketa epearen batz bestekoa 1,08 eguneko delako.

8.- GALDERA-ERREGUAK.

-EAJ/PNVko zinegotzia den Ana Jesus Leundak, bere kexa azaldu du, urtarrilean Udalbatzarrerik ez zelako egon eta inor ez zuelako ohartarazi. Oposizio taldeari ez jakinaraztea larria iruditzen zaiola eta errespetu falta bat dela.

Batzorde batzuetako deialdia bezperan jasotzen dutela eta fundamentu gutxi dagoela iruditzen zaiela.

Gorka Alkateak erantzun du esanez, Idazkariarekin hitzegin ondoren eta plenorako gairik ez zegoela ikusirik ez zuela deialdirik egin. Ez duela uste errespetu falta denik, baina hurrengo batean abisatzeko arazorik ez daukala.

Batzordeetako kasuetan, onartu du, batzorde bakarrean gertatu dela hori, kulturakoan izan zela eta teknikariak berak batzordean onartu zuen bere akatsa izan zela eta ez dela errepikatuko; gogoraraziko zaie teknikariei eta hortik aurrera ez daukat gehiago esateko.

Anak dio, gizarte zerbitzuak eta hirigintzako batzordeetan ere gauza bera gertatu dela.

Gorkak errepikatzen du, teknikariei gogoraziko zaiela eta trasladatuko dela EAJ/PNVk adierazitako kexa.

-Gorka Alkateak, bukatu aurretik adierazi du udala administrazio elektronikoaren bidetik lanean hasi dela eta aldaketa batzuk ematen joango garela pausuz-pausu.

Eguneraketa beharra daukagu legez eta herritarren eskubideak bermatzeko, aldi berean, langileek beraien lana eraginkorragoa izate aldera espediente kudeaketarekin hasiko garela.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 20:00tan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.